

## Printzipio pedagogikoak

### Barnetasuna

Nortasuna eraiki eta garapen osora iristeko bidea zabaltzen du barnetasunaren lanketak.



### Pentsamenduaren eraikitzea

Pentsamendua hezi behar da norberaren bizipenei zentzu betea emateko.



### Jokabide eta jarduera autorregulatua

Autonomiaz ikasteko ohiturak hartzean, ikastea bizipen bakarra eta berezia da norberarentzat.



### Adimena, gorputza, mugimendua

Betiko ikasgelen formatua aldatzean, sormena, ikaskuntza eta garapen kognitiboa bultzatzen dira.



### Ikaskuntzaren dimentsio soziala

Aberasgarri zaigu pertsonak errespetatzea eta jarduera sozial eta kulturaletan parte hartzea.



Ikaskuntza Testuinguru Berria La Salle

Ikaskuntza Testuinguru Berria (ITB) La Salle ikastetxeen erreferentzia markoa da eta ikaskuntzaren oinarrian jartzen ditu konpetentziak, esperientziak, ikaskuntza zeharkakoa eta instrumentala, izaera soziala eta adaptazioa; betiere, ikastetxe bakoitzaren testuingurura moldatuta.

Printzipio pedagogiko sendoak ditu oinarri, eta horiek dira, hain justu, gure proiektuaren ildo eta funtsa, kalitate bereizgarria eta balio erantsia dakarkiotenak gure hezkuntza egitasmoari.

Metodologia berritzailekoa izanik, ikasteko eremu askotarikoak ditu, curriculum bideratu eta barneratzeko hainbat ingurune didaktiko, ikasleek ikuspegi askotatik eta testuinguru propioen bidez ikasiko dutela ziurtatzeko.

## Oinarrizko zutabeak

## Ikasteko eremuak

### Harrera

Elkartzeko unea da, gogoeta egin, geure barnera begiratu, eguneko plangintza egin eta motibazioa piztekoa.



### Mintegia

Oinarrizko kontzeptuak eta prozedurak ikasten dira mintegietan, "jakintza" hori erabiliko baitugu proiektuetan eta tailerretan ikasteko.



### Proiektua

Ikasleak dira beren garapen prozesuaren protagonista nagusiak. Proiektuek konpetentziak eta diziplinartekotasuna lantzeko egoerak planteatzen dizkiete.



### Tailerra

Era integratzailean garatzen ditu pertsonaren dimentsio zientifiko-matematikoa, humanistikoa, artistikoa, teknologikoa eta espiritual-transzendentea.



### Itxiera

Ikasteko zikloa osatzen du, sintesiaren, autoebaluazioaren, metakognizioaren eta ospakizunaren bidez.



### Hezkuntza elkartea

Ikaslearen ondoan dago beti, orientazioa eman eta dimentsio guztietan hazten eta hezten laguntzeko.



### Eskola

Jakiteari adinako garrantzia ematen dio izateari, esperimentatzeari, sentitzeari, elkarbanatzeari eta ospatzeari.



### Ikaslea

Protagonista da bere ikaste prozesuan. Lanerako tresna ditu sortzea, elkarbanatzea, esperimentatzea...



### Familia

Bizipen guztietan eta ospakizunetan parte hartzen du ikaslearekin batera.



### Ebaluazioa

Osoa eta dimentsio guztietan.